

Nekazaritzako Elikagaien Estrategia Busturialdea-Urdaibai 2030

2022ko urtarrila



EDUKIA

1. Aurrekariak: nondik gatoz?

03

2. Justifikazioa: zergatik orain?

05

3. Testuingurua: non gaude?

08

4. Diagnostikoa: nola gaude?

14

5. Ikuspegi estrategikoa: nora goaz?

18

6. Gobernantza: zeintzuk dira eragileak?

26

7. Erreferentziazko dokumentazioa: zertan oinarritzen gara?

27

Aurrekariak: nondik gatoz?

Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioekin bat etorritik, eskualdeko nekazaritza-jarduera dinamizatzeko lantalde bat martxan jarri zuten 2020ko urrian Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak eta Urremendi Landa Garapen Elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, ENEEKekin, HAZIrekin, JANGURIErekin, LORRArekin eta NEIKERekin batera.

Lehen sektoreak bizi dituen zailtasunak ez datoz bat tokiko produktuaren eskari gero eta handiagoarekin. Hori dela eta, inplikaturako erakundeek ikuspegi estrategiko bat adostu behar dute, tokiko nekazaritzako elikagaien sistemen erronka nagusiei erantzuteko, bai eta dinamizazio-plan bat zehaztu ere, epe labur, ertain eta luzerako ekintza espezifikoak babestu, koordinatu eta proposatzeko.

Tokiko nekazaritzako elikagaien sistemei lotutako hainbat ikerketa egin dira lurraldean. 2012an «Urdaibaiko elikagai ekologikoak Urdaibaiko jantoki kolektiboetan» egin zen, eskualdearen beharrak eta elikagaien ekoizpen ekologikorako baliabideak bat etorrazteko. Ondorioetako bat izan zen eskualdeko jantoki kolektiboek eragin handia izan dezaketela Busturialdea-Urdaibain nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzean. Bestalde, 2015etik 2018ra bitartean, LURBIZI proiektua garatu zen, lehen sektorea suspertzeko eta tokiko elikadura-sistema jasangarria berreskuratzeko. Lanek agerian utzi zuten, besteak beste, jantoki kolektiboek tokiko elikagaien kontsumoa bultzatzeko edo dinamizatzeko ahalmena dutela.

2020an, eskualdeko jantoki kolektiboak hornitzeko, Busturialdea-Urdaibaiko tokiko elikagaien ekoizpenaren diagnostikoa egin zen tokiko elikagaien ekoizpenari eta kontsumoari buruzko datu eguneratuak izateko, eta bertan egiaztatzen da lehen sektorea estrategikoa dela lurraldearentzat. Ikerketak azpimarratzen duenez, enplegu-sortzailearen balioaz gain, funtsezko zeregina betetzen du eskualdearen nortasunean eta kulturaren, eta erabakigarria da Biosfera Erreserbaren berezitasunei eusteko, bereziki paisaiari, biodibertsitateari eta, oro har, ingurunearen naturaltasun-mailari dagokienez.

Ikerketa horrek berak ondorioztatzen du elikadura jasangarria, osasungarria eta tokikoa lehenesten duen sistema baten gero eta eskari handiagoa dagoela gizartean. Jantoki kolektiboek, tartean, eskolako jantokiek, gero eta interes handiagoa dute tokiko eta hurbileko produktuak kontsumitzeko, eta leku askotan eredu-aldaketa bat hasi dute elikadura-sistema berri horretarantz. Busturialdea-Urdaibaik bultzada, eskaria, lurraldea eta nekazaritza-sektorea ditu aldaketa hori gauzatu ahal izateko.

Zehazki, ikerketak honakoa identifikatu du:

- *Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du **elikadura jasangarria, osasungarria eta tokikoa** lehenetsiko duen sistema baterantz aldatzeko.*
- ***Profesional berriak** sartzea ezinbestekoa da Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektoreko arazorik garrantzitsuena geldiarazteko: zahartze-prozesu azkarra eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren murrizketa.*
- ***Eredu ekologikoa bultzatzea** estrategikoa da lehen sektore dinamiko bat mantentzeko, jasangarritasunarekin eta ingurunearekin konprometitua.*
- ***Jantoki kolektiboen eredu berria** tokiko elikagaiak ekoizteko aukera bat da.*
- *Tokiko produktuak **prozesatzen eta transformatzen laguntzeko azpiegiturak** sortzeak onurak ekarriko lizkieke ustiatzei.*
- ***Nekazaritzarako lur erabilgarriaren** beharrak mugatu egiten du, lurraren jabetza eta lurzoruen espekulazioa oztopo handia direlako.*
- *Inplikaturako **eragile askoren arteko koordinazio eta lankidetzaren logistika** bultzatzea da neurririk beharrezkoena.*

Tokiko errealitate hori egiaztatu izanak bultzatu zituen erakundeak 2021ean lehentasunezko lau jardura-eremutan lan egitera:

Lur-eskuragarritasuna

Tokiko produktuen balio-katea

Frutagintza jasangarria

Ekologiko bihurtzeko ereduak

Eremu espezifiko horietako diagnostiko-lanak ahalbidetu egin du tokiko nekazaritza-dinamizazioa ikuspegi integral batetik jorratzea. Dokumentu honek ikuspegi estrategikoa laburbiltzen du, inplikaturako erakundearen arteko lankidetzaren emaitza dena.

Justifikazioa: zergatik orain?

Busturialdea-Urdaibai lehen sektoreko jardueretan aritu izan da historikoki, nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta itsas-jardueretan. Askotariko eskualdea da, eta ekoizpen-orientazio desberdinek presentzia nabarmena izan dute, batez ere udalerrri landatarrenetan. Baina azken urteotan, nekazaritza-sektorearen garrantzia gero eta txikiagoa da. Ez da nekazaritza-azalerarik galtzen, baina bai aktiboak eta tokiko dinamismoa.

Gaur egun, nekazaritza-ekoizpena, funtsean, baratze- eta fruta-sektoreetara mugatzen da, baita behi-aziendara ere, eta ustiategi horiek oso gutxitan izaten dute orientazio profesionala. Izan ere, gehienek bigarren mailako izaera dute, eta errenta osatzeko edo autokontsumorako dira, eta oso urriak dira lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak. Industria- eta zerbitzu-sektoreak landan jardun lezakeen lanekuaren zati handi bat hartzen du, eta, ondorioz, eskualdeko baserri gehienak desprofesionalizatu egiten dira eta nekazaritza-jarduera mistoa eratzten da. Jarduera horrek, alde batetik, sektoreak jarraitzea ahalbidetzen du, baina, bestetik, bere ekoizpen- eta merkataritza-egiturak ahultzen ditu.

Eskualdeko ustiategi kopuruaren beherakada etengabea izan da azken hamarkadetan. Nekazaritzako Ustiategien Erregistroaren arabera, 2020an 1.431 ustiategi daude erregistratuta; horietatik, 406 ustiategik soilik eskaintzen diote ekoizpenaren zati bat salmentari, eta, merkatura bideratuta eta 0,5 NLU baino gehiagorekin, nekazaritzako 61 ustiategi profesional baino ez daude. Datu horiek erakusten dute gaur egun nekazaritza-jardueratik profesionalki bizi diren pertsonen kopurua oso txikia dela.

Ekoizpen-tipologiei dagokienez, hasi berriak gero eta gehiago bideratzen dira nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren eta merkaturatze-bide laburren aldeko apustua egiten duten ereduera. Busturialdea-Urdaibain, ziurtatutako nekazaritza azalera ekologikoa % 10,26 handitu da azken hamar urteetan, eta, tokiko elikagaien ekoizpenaren diagnostikoaren arabera, eskualdea nabarmendu egiten da tokiko produktua merkaturatzeko bide laburren indarragatik. Argudiatu da zuzeneko salmentako eredu berriek ere ezarpen ona dutela inguruan, eta jantoki kolektiboen hornidura aukera bat izan daitekeela eskualdeko lehen sektorearentzat.

Illo horretan, Busturialdea-Urdaibaik ikastetxe aitzindariak ditu eskola-jantokietan autokudeaketa-ereduaren ezarpenean eta tokiko lehengaien erabileran. Jangurie ekimenak gaur egun 16 ikastetxe biltzen ditu, helburu dutenak jantokia jasangarria, osasungarria eta tokikoa izatea. Horrek aukera ematen du tokiko ekoizpena antolatzeko, eskola-jantokiak hornitzeko, baina baita beste jantoki kolektibo batzuk hornitzeko ere, hala nola egoitzak.

Ekoizpen potentzialaren eta jantoki kolektiboetako kontsumo potentzialaren arteko balantzea egin ondoren, ondorioztatu da eskualdeko ekoizle profesionalak nahikoa ekoizpen-ahalmen dutela eskualdeko jantoki kolektiboen etorkizuneko eskari potentzialari aurre egiteko, baldin eta ekoizpena horretara bideratzen badute. Ekoizpenak eskaria gainditzen du azpisektore guztietan, frutagintzan izan ezik.

Gaur egungo eskarirako ekoizpen-ahalmen nahikoa dagoen arren, iradokitzen da hainbat estrategiarekin edo horien arteko konbinazioarekin bermatuta egon litekeela hornidura eskariaren hazkunde hipotetiko batean: jantokietara bideratutako ekoizpenaren ehuneko handitzea, eskualdeko ustiatzei dagozkien beste azalera batzuk erabiltzea, lursail berriak eskuratzea edo eskualdean ustiatzei profesional berriak sartzea.

Beraz, une egokia da eskualdeko eskola-jantokien sare bat bultzatzeko eta indartzeko, zeinak beste jantoki kolektibo batzuetara hedatzeko aukera duten. Gainera, hori eskatzen du gizarteak, eta bada abian jartzeko lanean ari den ekimen bateratu bat ere.

Hori horrela, honako hauek dira egoera aztertzean sortzen diren galderetako batzuk, tokiko nekazaritzako elikagaien sistemei buruz:

- *Nola eragin diezaioke ekoizpenari jantoki kolektiboek tokiko produktu ekologikoen eskaria handitzeak?*
- *Nork elikatuko du Busturialdea-Urdaibaiko biztanleria modu jasangarrian datozen urteetan?*
- *Nolakoak izango dira nekazaritzan arituko diren pertsonak?*
- *Zer nekazaritza-enpresa mota nagusituko da eskualdean?*
- *Nola eragingo diete nekazaritza-dinamika berriek Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioei?*
- *Zer egin dezakete administrazio publikoek egoera jasangarrien alde lan egiteko?*
- *Zein da antzemandako erronkei erantzutera bideratutako jarduketak koordinatzeko eta abian jartzeko modurik onena?*

Zalantza horiek ezagutza sortuz eta datozen urteetan nahi den errealitatea planifikatuz baino ezin dira argitu. Egungo egoerari buruzko datuak izateak erraztu egiten du nazioartean zein tokiko eskalan estrategiak inplementatzea. Horretarako, lantaldea eskualdeko indarguneak eta ahulguneak antzematen ari da nekazaritzako elikagaien sektoreari, elikadura jasangarriari eta lurraldeen arteko orekari dagokienez. Hori dela eta, funtsezkoa da ahaleginak batzea modu koordinatuan lan egiteko eta ekintzak lehenbailehen inplementatzen hasteko.

Busturialdea-Urdaibaiko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia 2030 dokumentuak honakoa egin nahi du:

- *Busturialdea-Urdaibaiko nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorerako **plangintza estrategikoa**.*
- *2030erako Busturialdea-Urdaibain nekazaritzako elikagaien zer eredu nahi den **adostea**.*
- *Lurraldearen premien arabera jarraitu beharreko helburu estrategikoak **lehenestea**.*

Lurraldean errotutako nekazaritzako elikagaien sektore berritzaile baterantz aurrera egiteko ibilbide-orria da Busturialdea-Urdaibaiko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia 2030.

Testuingurua: non gaude?

3.1 Adostasuna eredu jasangarrien aldeko nazioarteko jarraibideetan

Planetaren osasun-adierazle askoren erantzule dira nekazaritzako elikagaien sistemak. Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko sistemak dira gizarteak datozen urteetan izango dituen ingurumen-erronka askoren oinarria, baita erronka sozial eta ekonomikoena ere. Urruneko elikagaiak ondorio kaltegarriak dituzte ingurumenean, eta horrek nazioarteko hainbat erakunde behartzen ditu jarraibide estrategikoak zuzentzera.

Gaur egun, mundu mailan, **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** dira erreferentzia-esparru estrategikoa. 2015ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen ibilbide-orri hori, 17 GJH eta 169 mugarri dituena, planteatutako erronkak lortzeko. Bertan, zeharkako 5 dimentsio ere hartzen dira kontuan: pertsonak, planeta, bakea, oparotasuna eta lankidetzeta. Esparru estrategiko horretan, nekazaritzako elikagaien sistemek funtsezko zeregina dute GJHak lortzeko; izan ere, elikagaien ekoizpena eta kontsumoa 17 GJHen zati handi batekin lotuta dago, gutxi gorabehera zuzenean. EAEn, **Euskadi Basque Country 2030 Agendak** Eusko Jaurlaritzaren ikuspegi estrategikoa jasotzen du. Bertan, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak zehazten du nola erlazionatzen diren GJHak gaur egun nekazaritzako elikagaien sistemekin lotutako gaiak biltzen dituzten plan eta programekin.

Europar, Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) da nekazaritza-sektoreari laguntzeko ardatz nagusiak ezartzen dituena. Gaur egun, 2020tik aurrerako NPB lantzen ari dira, zeina, Espainian, **Espainiako Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoan (NPBPE) zehazten den**. Onartu ondoren, etorkizuneko Landa Garapenerako Programek ezarriko dituzte tokiko gidalerroak. Ildo horretan, gaur egun landa-garapenarekin eta tokiko nekazaritza-dinamizazioarekin lotutako eskualde-plangintza 2015-2020 aldirako eskualdeko LGPetan jasota dago, eta 2023-2027 aldirako eguneratzeke dago.

Europar, aipagarriak dira Europako Batzordeak onartutako bi planteamendu estrategiko garrantzitsu: **Europako Itun Berdea (European Green Deal), 2019an onartua, eta «Baserritik Mahaira» estrategia (Farm to Fork Strategy), 2020an onartua**, zeinak ingurumena errespetatzen duen elikadura-sistema bidezkoago eta osasungarriago baten alde egiten duen. Dokumentu estrategiko horiek, oraingoz, ez dute eraginik arau-esparruetan, baina Europako nekazaritza-ekoizpenaren norabidea markatzen dute, eta tokiko nekazaritzako elikagaien sistemen sustapena eta ziurtatutako nekazaritza-ekoizpen ekologikoa azpimarratzen dituzte.

Europako Itun Berdea Europako ekonomia jasangarri bihurtzeko ibilbide-orria da. Horretarako, klimaren eta ingurumenaren arloko erronkak jarduera-eremu guztietako aukera bihurtzea bilatzen du, baita trantsizioa guztiontzat bidezkoa eta integratzailea izatea ere. Ekonomiaren sektore guztiak barne hartzen ditu, bereziki garraioa, energia, nekazaritza, eraikinak eta industriak. Tokiko eskalan ingurumen-erronkei aurre egiteko hautemandako beharrak erantzun estrategiko hori justifikatzen du, zeina honako hauetan oinarritzen baita: baliabideen erabilera efizientea, berotegi-efektuko gasen murrizketa, ekoizpen-sektoreen modernizazioa, kapital naturalaren babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka. Europako Itun Berdeak berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 50 murriztea du helburu 2030. urterako, 1990eko mailekin alderatuta, eta 2050erako klima-neutraltasuna lortzea.

Europako Itun Berdeak nekazaritzako elikagaien arloa jorratzen du «Baserritik Mahaira» strategiaren bitartez, eta bere xedea da elikagaien segurtasuna babestuko duen eta elikadura osasungarria eta jasangarria bermatuko duen elikadura-sistema bateranzko trantsizioa erraztea, elikagaiak alferrik galtzea murriztuz. 27 neurri proposatzen dira nekazaritzako elikagaien sistema jasangarrietarako trantsizioa errazteko, elikadura osasungarriko sarbidea hobetzeko eta tokiko ekoizpenak babesteko. Estrategia horren helburu nagusien artean honakoak nabarmentzen dira: pestizida kimikoen, ongarrien eta mikrobioen aurkako tratamenduen erabilera eta arriskua murriztea eta ekoizpen ekologikoa areagotzea.

EAEEn, Europako Itun Berdea **Basque Green Deal (BGD)** izenekoan zehazten da. Bertan, emisioak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko helburuak jasotzen dira, garapen bidezkoa eta jasangarria lortzeko. Eusko Jaurlaritzak honako ildo hauek proposatzen ditu: energia berriztagarrien aldeko apustua, industria jasangarria, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatea babestea eta kutsadura murriztea, eta baserritik mahairako mahairako elikadura. Azken horrek honakoak biltzen ditu: nekazaritza ekologikoari eta 0km-ko produktuari laguntzeko programak, elikagaiak alferrik galtzearen aurkako ekimena, landaren eta itsasertzaren garapenari laguntzea eta lehen sektoreko belaunaldi-erreleboa.

Basque Green Deal erakundeak zehaztutako ibilbide-orriaz harago, EAEEn nekazaritzako elikagaien sektorearekin lotura handiena duten planak eta programak honako hauek dira: 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programa (OSOA), Nekazari Gazteentzako Gaztenek Plana, Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana eta 2020rako Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa. Estrategia horiek guztiak bat datoz nekazaritzako elikagaien sistema jasangarri, arduratsu eta seguruaren alde lan egiteko Europako jarraibideekin.

3.2 Tokiko nekazaritzako elikagaien sistemak indartzea, lurraldea dinamizatzeko

Nagusiki tokiko eskala eta ingurunea errespetatzen duten ekoizpenak berreskuratzearen alde egiten dute ekoizpen-eredu berritzaileen aldeko nazioarteko estrategiek. Landa-lurraldeek nekazaritza-egiturak dinamizatu behar dituzte erronka globalei erantzuteko, tokiko ekoizpen- eta kontsumo-sistemekin zuzenean lotuta dauden nekazaritza-eredu berrietan oinarrituta. Hurbileko elikagaiak, freskoak eta osasungarriak, kontsumitzeko beharrak eragiten du ekoizpen-egiturak birpentsatzea, planetaren muga araberakoak izan daitezen.

Tokiko nekazaritzako elikagaien sistemak enpresa-sare dinamiko baten egituraketan oinarritzen dira, zeinak balioa hartzen duen ekoizpen-, elaborazio-, transformazio- eta merkaturatze-prozesuan. Gaur egun Europako lurralde askotako erronka da funtzionamendu egokirako oinarritzko azpiegituretako batzuk galdu egin direla. Azken urteotan, gidalerroak gehiago bideratu dira merkatu globalera tokiko merkatura baino, eta horrek kalte egin die lurraldeka banatutako ekoizpen-egiturei, hala nola azokei, hiltegiei edo bilketa-zentroei.

Gaur egun, bi nekazaritza-enpresa mota bereizi daitezke, garatzen duten ekoizpen- eta merkataritza-ereduaren arabera. Alde batetik, nekazaritzako enpresa dimentsionatuak, intentsiboak, espezializatuak eta merkatu globalera bideratuak, non planetako edozein lekutara bidaiatzen duten elikagaiak eskala handian ekoizten diren. Bestetik, tamaina txikiko eta ertaineko nekazaritza-enpresak daude. Enpresa horiek dibertsifikatuta egon ohi dira, eta merkaturatze-bide laburretara bideratzen dute ekoizpena. Bi mota horien artean estrategia desberdinak uztartzen dituzten eta dimentsio desberdinak dituzten enpresak daude. Nolanahi ere, egiaztatzen dena da etorkizuneko ekoizpen-ereduek gero eta jasangarriagoa den eta lurraldearekin lotuagoa dagoen ekoizpen bati lotuta egon beharko dutela.

Merkaturatze-bide laburrak dira nekazaritzako elikagaiak bitarteko baten bidez edo bitartekorik gabe merkaturatzeko moduak. Zuzeneko salmenta da ekoizpenetik kontsumora igarotzen denean, tartean bitartekorik izan gabe, hala nola finkan, merkatu batean edo online egiten den salmenta; merkaturatze-bide laburra, berriz, bitartekari batek edo enpresa batek esku hartzen duenean, esaterako, tokiko saltegi batek edo jatetxe batek. EAEko 2015-2020 aldirako Landa Garapeneko Programak honela definitzen ditu «Banaketa-kate laburrak»: hornikuntza-kate bat da, lankidetzarekin, tokiko garapen ekonomikoarekin eta gertuko eremu geografiko batean ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman sozioekonomikoekin konprometitutako agente ekonomikoen kopuru mugatu batek osatutakoa.

Kate horiek bideragarritasun sozial eta ekonomikoa ematen diete tokiko ekoizpenei. Horretarako, beharrezkoa da lankidetzaren harremanak garatzea kontsumitzaileekin, beste ekoizleekin, administrazioekin edo gizarte-erakundeekin, besteak beste. Horrela, errazagoa da elikagai osasungarrien kontsumoa normalizatzea eta tokiko eta sasoiko produktu ekologikoetarako sarbidea hobetzea. Bultzada horrek, bide laburrei ez ezik, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanei ere mesede egiten die, eta nekazaritza-enpresen bideragarritasuna errazten duen konpromiso-maila bat sortzen du.

Elikadura-osasunari, klima-krisiaren inguruko erronkak betetzeari, eta ingurumen-jasangarritasuna areagotzeko beharri buruzko kezkek, bai eta Garapen Jasangarrirako Helburuek ere, agerian utzi dute Europar elikagai gehienak ekoizten eta kontsumitzen diren egungo moduak jada ez direla onargarriak. Horri gehitu behar zaio gizarteak COVID-19aren pandemiarekin aurrez aurre izan duen errealitatea. Azken urteotan, hainbat dokumentu estrategikok ohartarazten dute Europako nekazaritzako elikagaien sistema eraldatu behar dela, elikagaien ekoizpen- eta kontsumo-egoera jasangarriago baterantz.

EAEen ere herritarren zati handi bat kezkatzen dute kontsumitzen diren elikagaiek, eta, beraz, gero eta gehiago bilatzen dira ingurumenerako zein gizarterako jasangarriak diren ekoizpen-moduak. Horrek aukera ematen du lurraldean ekimen berriak sortzeko, hala nola kontsumo-taldeak, kooperatibak eta kontsumitzaileen elkarteak, baserritarren merkatu eta dendak, jantoki kolektiboak, finkako salmenta, etab. Ekimen horien oparotasunak elikadura-subiranotasunean eta -justizian oinarritutako sare berriak sortzea ahalbidetzen du, eta sare horiek, aldi berean, tokiko enpresak dinamizatzen dituzte, nekazaritzako belaunaldi berriei aukerak eskainiz.

3.3 Biosfera Erreserbaren balioekin bat datorren nekazaritza-ekoizpen ekologikoa

Eskualdea Urdaibai Biosfera Erreserbarekin bat dator. Lurraldearen balio naturalak, ingurumenekoak, kulturalak eta sozialak dira nekazaritza-eredu jasangarrietarako ekoizpen-ingurune aproposa sortzen dutenak. Ildo horretan, nekazaritza-ekoizpen ekologikoa da elikagaien ekoizpena balio handiko naturgune batekin, Urdaibairekin, integratzeko modurik onena. Europan elikagai ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa etengabe handitzen da urtero. Elikadura osasungarriaren eskari gero eta handiagoak eragin du azken hiru hamarkadetan Europako elikadura eta nekazaritza ekologikoa urtez urte haztea. Europako merkatu ekologikoa oso dinamikoa da, nahiz eta kontuan hartu behar den hazkunde-tasak aldatu egiten direla herrialdeen artean.

2019an, Europar Batasuneko nekazaritza-lur guztien % 7,5 ekologiko gisa ziurtatuta zeuden, eta ziurtatutako nekazaritza-enpresei dagokienez, ehunekoak % 5 handitu da 2018arekin alderatuta. Hazkunde esanguratsu horrekin batera, merkatua ere handitu da, txikizkakoa zein handizkakoa, eta horrek ekoizpen-sektorearen zati handi bat bultzatzen du enpresa-estrategiak birbideratzera.

Hori horrela, Europako Batzordearen Baserritik Mahaira estrategiak ziurtatutako ekoizpen ekologikoaren aldeko apustua egiten du, funtsezkoa baita Europako Itun Berdearen elikagai-asmoak lortzeko. Horretarako, 2030. urterako gutxienez Europako nekazaritza-lurren % 25 ekologikoak izatea ezartzen da. Estrategia horren barruan, Europako Batzordeak Nekazaritza Ekologikorako 2021-2027 Ekintza Plana argitaratu zuen. Plan horren helburua Europan eskaintza eta eskari ekologikoa sustatzea da.

Bestalde, EAEko gizarteak gero eta interes handiagoa du produktu ekologikoen ekoizpenarekiko eta kontsumoarekiko, eta eragile kopurua % 8 hazi da 2015arekin alderatuta. Ekoizpen ekologikoa hazkunde ekonomiko jasangarrirako aukera gisa eta elikadura osasungarriaren sustapen gisa ikusten da. Horretarako, Euskal Herriko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana (2020-2023) jarri da abian. Plan horrek ezartzen ditu ekoizpen ekologikoa handitzeko, transformazio- eta merkaturatze-katea garatzeko eta tokiko produktu ekologikoaren eskaria indartzeko jarraibideak eta jarduerak.

Ildo horretan, nabarmendu behar da inplikaturako erakundeek nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren aldeko apustua gero eta gehiago egiten dutela, eta ikuspegi desberdinetatik. Adibidez, NEIKERek, 2030 Agendan jasotako 17 helburuak betetzeko, klima-aldaketak nekazaritza-jardueran eta natura-ingurunean duen eragina eta egokitzapena ikertzen du, eta lan egiten du lehen sektoreko jarduerak jasangarriagoak izan daitezen. Ikuspegi horretan, funtsezkoa da ekoizpen-sistema ekologikoei buruz ikertzea.

Biosfera Erreserbaren balioen harira, beharrezkoa da eredu jasangarri berrietarantz aurrera egitea, nekazaritza-ekoizpena eta naturaguneen kontserbazioa eta hobekuntza bateratu ahal izateko.

Beste biosfera-erreserba batzuek, hala nola Menorcak edo Terres de l'Ebrek, ekoizpen-eredu berrien aldeko ekintzak txertatzen dituzte beren plan estrategikoetan. Esate baterako, Menorcan, Contrato Agrario Reserva de la Biosfera dokumentuak bermatu du Menorcako 180 nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategik praktika jasangarriak gauzatuko dituztela, eta, hala, Espainian lehen sektorerako aitzindaria den kudeaketa-tresna bat finkatzea erraztu du. Ebroren deltan dokumentu horren ereduari jarraitzea aurreikusi da, baita nekazaritza-lurren banku bat sortzea ere.

Busturialdea-Urdaibain 35 nekazaritza-ekoizle ekologiko daude, 2012an baino % 54 gehiago. Horietako asko baratze-ekoizleak dira, eta gutxiago fruta- edo azienda-ekoizleak. Batzuk profesionalki aritzen dira, eta beste batzuk nekazaritza-lana beste jarduera batzuekin uztartzen dute. Aipagarria da eskualdeko belaunaldi berrien gehiengoa nagusiki ekoizpen ekologikoan sartzen ari dela.

3.4 Nekazaritza-belaunaldi berriei laguntzeko berrikuntza

Ekoizpen-egiturak berritzea erronka handia da gaur egun Europako lurralde gehienetan, baita Busturialdea-Urdaibain ere; izan ere, ez dago nekazaritzako belaunaldi-erreleborik eta sektorea zahartzen ari da. Europako Batzordeak «nekazari berrien eskasia kezkarria» identifikatu du, estatistika-zifren ebaluazio batean oinarrituta. Ebaluazio horrek erakusten du nekazari gazteen kopurua gutxitzen ari dela eta adineko nekazariak ez direla nekazaritza-ustiategiak belaunaldi berrira pasatzen ari, ordezkapen-tasa nahikoarekin.

Gertaera horrek «young farmer problem» delakoa finkatzen du nekazaritza-sektorearen eta landa-munduaren erronka estrategikotzat. Faktore sozial, ekonomiko eta kulturalen baturak lehen sektorearen osasunari eragiten dio, eta alerta-egoeran jartzen ditu gaur egungo nekazaritza-ustiategi asko, ez baitute jardueraren errelebo naturalik aurreikusten. Errealitate hori hainbat lurralde-eskalatan ikusten da, eta Europako egiturazko arazotzat hartzen da. Hainbat erakunde, elkarte eta sindikatu lanean ari dira nekazaritza-belaunaldi berriak babestera eta bultzatzera bideratutako tresnak berritzeko.

Europako beste joeretako bat, EAEkoa ere badena, nekazaritzan jardun nahi duten pertsonen profilen aldaketa da. Familia barneko nekazaritza-erreleboak behera egin du, eta sektorerara sartzen diren nekazaritza-jatorririk ez duten pertsonen kopuruak gora. Europako zenbait ikerketak erakusten dute sektorean sartzen diren pertsonen ehuneko handi batek ez duela nekazaritza-jatorririk. Horrek berriz planteatzen du belaunaldi-erreleboari laguntzeko politiken ikuspegia, eta sektorea gaztetzeko modu berriak planteatzera bultzatzen ditu inplikaturako eragileak.

Nolanahi ere, nekazaritza-sektorean sartzen diren pertsonen profilen aldaketak nekazaritza-eredu berriak indartzeko aukera gisa ikusten dira. Horrez gain, familiaren nekazaritza-erreleboa hartzen duten gero eta gazte gehiago ari dira kontsumoarekin erlazionatzeko modu berrien aldeko apustua egiten. Gero eta interes handiagoa ikusten da nekazari berrien enpresa-ereduak tokiko elikadurari lotutako ekoizpen jasangarrian oinarrituta antolatzeko.

Belaunaldi-erleleboko prozesuei estaldura eman ahal izateko, estrategia desberdinak planteatzen dira familiaren nekazaritza-jatorriaren arabera. Ekoizpen-orientabide berrien, kudeaketa-eredu berrien edo merkaturatze-estrategia berrien berrikuntzan oinarritzen dira esperientzia eta tradizioa duten pertsonen zuzendutako laguntza-programak. Europatik planteatzen diren aholkularitza-programek begirada integrala ematen diete pertsonari eta enpresari, eta etorkizuneko eredu jasagarriekin nekazaritza-sektorean berritzen dutenen talentua sustatzen dute. Prestakuntza eta esperientzia gutxi duten pertsonentzat, beste modu batzuk planteatzen dira ikuspegi ekintzailea sektorearen errealitatera hurbiltzeko. Europatik esperientziak trukatzeko ereduak, esploratzeko praktikak, tokiko aholkularien programak edo nekazaritzako test guneak planteatzen dira.

EAEEn, Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera garatutako Gaztenek programaren bidez laguntzen zaie nekazaritza-belaunaldi berriei. Monitorizaziorako eta laguntza integralerako eta pertsonalizaturako zerbitzua da, lehen sektorean lehen aldiz kokatu nahi duten ekintzaileei zuzendua. Nekazaritza-enpresa sortu aurretik, Gaztenek programaren bidez ekintzaileek sektorerara hurbiltzeko bekak eta errelebo irekiko programa balia ditzakete, behar izanez gero.

Europako errealitateek antzeko joerak erakusten dituzte. Alde batetik, jardueran aritzen diren pertsonen murrizketa eta nekazaritzako biztanleriaren zahartzea, eta, bestetik, askotariko profileko belaunaldi berria, zeinak eredu jasagarrien aldeko apustua egiten duen. Hainbat errealitateen azterketak erakusten du nekazaritza-ekoizpen ekologikoa, merkaturatze-bide laburrak eta jardueraren dibertsifikazioa direla sektorean sartzen diren ekintzaile gehienak (nekazaritza-jatorri zuzena dutenak eta ez dutenak) jarraitzen ari diren estrategiak.

Diagnostikoa: nola gaude?

4.1 Ahulguneak

Baserriaren egiturazko errealitatea, ustiategiari lotutako etxebizitza gisa, eta horrek nekazaritza-finkak eskualdatzeko eragiten dituen zailtasunak.

Baserritarraren ikuspegi tradizionala: errentagarritasun urriko eta bizi-kalitate mugatuko lanbidea.

Profesionaltasun-maila baxua eta enpresa-antzerki txikia duten nekazariak: 74 pertsonaren jarduera-profesional nagusia baino ez da nekazaritza.

Frutagintzara bideratutako eta tokiko eskari potentzialari erantzuteko gai diren nekazaritza-ustiategien eskasia.

Nekazaritza-ekoizpen berrietarako lur optimo gutxi izatea (15 lursail eta 14,93 hektarea guztira).

Eskualdearen ezaugarrietara eta ekoizpen-ereduetara egokitutako prestakuntza espezifikorik ez izatea.

Nekazaritzarako lur erabilgarriaren beharrak mugatu egiten du, luraren jabetza eta lurzorua espekulazioa oztopo handia direlako.

Produktuaren sasoikotasun handia: produktu fresko asko dago udan, eskola-jantokietan kontsumitzen ez denean.

Kiwi da ekoizpen-profesional handiena duen fruta, baina ez da kontsumitzen eskola-jantokietan.

4.2 Mehatxuak

Klima-larrialdi globalaren ondorioen eta eraginen goranzko joera.

EAEko nekazaritzako elikagaien sektorearen indar beherakorra (BPGd-ren % 0,84).

«Young farmer problem», Europako nekazaritza-sektorearen eta landa-munduaren erronka estrategikoa.

Nekazaritza-jardueraren gogortasuna eta arduraldi etengabea.

Nekazaritza-lanaren ikusgarritasun eta balorazio txikia.

Genero-desberdintasuna.

Belaunaldi-txandaketarik eza eta eskulan kalifikaturik eza.

Lurzoruaren erabilerarako lehia nekazaritzakoak ez diren beste jarduera batzuekin.

Beste ekoizpen-sektore batzuetan lan egiteko erraztasuna.

Sartzen direnen paradoxa: kokatzen diren pertsonak ez dira nekazaritza-eskoletatik pasatzen, eta prestatzen direnak ez dira nekazaritzaren sektorean kokatzen.

Nekazaritzako profil berrientzat laguntza-tresna nahikorik eza.

Gernikako azokan erreleborik eza, ez ekoizleen artean, ezta kontsumitzaileen artean ere.

4.3 Indarguneak

2020an sortutako nekazaritza-sektoreko Lan Mahaia.

Busturialdea-Urdaibain lehen sektorean lan egiten duen biztanleriaren ehunekoa (% 3,46) Bizkaikoa (% 0,87) baino handiagoa da.

Eredu jasagarrietan kalitatezko ekoizpena izateko baldintza klimatiko eta agronomiko aproposak.

Busturialdea-Urdaibaiko tokiko elikagaiak kalitate handikotzat jotzea.

Babarrunaren, piperraren eta txakolinaren aitortza.

Ziurtatutako nekazaritzako azalera ekologikoaren goranzko joera, azken 10 urteetan (% 10,26).

Busturialdea-Urdaibai tokiko produktuaren merkaturatze-bide laburren indarragatik eta balioagatik nabarmentzen da.

Nekazaritzako elikagaien arloko ekintzailtza eta berrikuntza babesten duten erakundeen sarea (HAZI, NEIKER, LORRA, etab.).

Nekazaritza Lurren Funtsa, lurra eskuratzeko prozesuak errazteko.

Naturagune Babestuetako Turismo Jasagarriaren Europako Gutuna (TJEG).

Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana, ekoizpen ekologikoa areagotzeko, transformazio-eta merkaturatze-katea garatzeko eta tokiko produktu ekologikoen eskaria indartzeko.

Nekazari Gazteentzako Gaztenek Plana (2020), sektorean lehen aldiz kokatu nahi duten gazteei laguntzeko.

Jantoki kolektiboak hornitzen esperientzia duen nekazaritza-ustiategien taldea.

Jantoki kolektiboak hornitzeko eta haien ekoizpena dibertsifikatzeko interesa duten gazteak, erosketa-konpromisoarekin.

Eskualdean kokatutako elkarteak, kontsumo-taldeak eta/edo kooperatibak.

Baserritik Gernikara merkaturatzeari begira antolatutako ekoizleak.

Jangurie ekimenak 16 ikastetxe biltzen ditu, helburu dutenak jantokia jasagarria, osasungarria eta tokikoa izatea.

4.4 Aukerak

Nekazaritzako elikagaien paradigma aldatzearen aldeko nazioarteko arau-esparrua (2030 Agenda eta European Green Deal).

Hurbileko eta sasoiko ekoizpen eta kontsumo arduratsuaren kontzientzia handitzea.

Lehen sektorearen garrantzia biodibertsitatea kontserbatzeko eta Urdaibai Biosfera Erreserbari nortasuna ematen dion paisaia sortzeko.

Eskualdeko eta tokiko merkatuaren beharretara egokitzen diren tokiko fruta bariatateak esploratzeko aukera.

Baratze-ustategi ekologikoen bideragarritasun ekonomikoa errazteko prestakuntza biointentsiboa ezartzeko aukera.

Basque Green Dealek, helburu estrategikoetan, belaunaldien arteko erreleboa lehenesten du lehen sektorean, bai eta nekazaritza ekologikoa eta 0km-ko produktua babestea ere.

Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorearen gaztete-arazoa geldiarazteko eragile profesional berriak sartzeari.

Administrazioak interesa izatea ekoizpenerako behar den gutxieneko nekazaritza-azalera lortzeko egokitzat jotako lurzatiak erosteko.

Eskualdean nekazaritzako test gune bat sortzea, sektorean sartzeko prozesuak errazteko eta ekoizpen-eredu berritzaileen ispilu gisa.

Biosfera Erreserbako Nekazaritza Kontratua, nekazaritza-ekoizpenaren eta natura-ingurunea zaintzearen arteko konpromiso gisa.

Jantoki kolektiboak hornitzeko eskari gero eta handiagoa.

Jantoki kolektiboan kudeaketari buruzko araudia aldatzeko aukera, tokiko elikagaiak zuzenean hornitzea errazteko.

Ikuspegi estrategikoa: nora goaz?

5.1 Misioa, ikuspegia eta balioak

Misioa

Tokiko nekazaritza-sektorea indartzea, egungo sareari eta nekazaritza-enpresa berriei laguntzeko tresna berritzaileen bidez, elikagai osasungarriak ekoizteko eta Busturialdea-Urdaibaiko natura-ingurunea zaintzeko.

Tokiko nekazaritza-sektorea indartzea ...

Nekazaritza-jarduera funtsezkotzat jotzen da tokiko dinamizazio sozioekonomikorako, elikadura osasungarria izateko eta Biosfera Erreserbaren balioei eusteko. Tokiko eskalatik ekoizpen-egiturak indartzea lehentasunezkoa da nazioarteko nekazaritzako elikagaien estrategia gehientzat, eta, beraz, funtsezkoa da lurraldetik hurbilen dagoen eskalatik jardutea.

... tresna berritzaileen bidez ...

Berrikuntza funtsezkoa da tokiko nekazaritzako elikagaien sektorean eta ekintzailetza-dinamika berrietan paradigma-aldaketa lortzeko. Lankidetzaren publiko-pribatua gai da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eskari berrietara egokitutako berrikuntza sortzeko. Arau-esparru berriek hala aurreikusten dute eta lagun dezakete.

... egungo sareari eta nekazaritza-enpresa berriei laguntzeko ...

Nekazaritza-sektorea indartzeko, beharrezkoa da enpresa aktiboetan zein berrietan eragitea. Enpresa mota bakoitzak tresna desberdinak behar ditu bere profilararen eta finkatzeko bidean duen unearen arabera. Politika publikoen ikuspegia gero eta gehiago egokitzen da nekazaritzako elikagaien sektoreko profil ekintzaile desberdinetara. Horri esker, lurraldean laguntza-estrategiak indartu daitezke, bai egungo sareari, bai iristear dauden nekazaritza-enpresa berriei laguntzeko.

... elikagai osasungarriak ekoizteko...

Elikagai osasungarrien ekoizpenean eta kontsumoan oinarritzen da nekazaritzako elikagaien paradigma berria. Dieta osasungarriak helburu estrategikoa dira, pertsonen osasunaren, ekoizpen-ereduekiko koherentziaren eta ingurunearekiko harremanen ikuspegitik. Nazioarteko ibilbide-orriak gero eta gehiago oinarritzen dira hurbileko elikadura jasangarri eta osasungarria sustatzean.

... eta Busturialdea-Urdaibaiko natura-ingurunea zaintzeko.

Urdaibai Biosfera Erreserba funtsezko balioa da lurraldearentzat. Hori horrela, tokiko nekazaritza-ekoizpena natura-ingurunearen premiekin erabat integratzera bideratu behar da, kontserbazioa eta ekoizpena uztartu ahal izateko. Gizarte-eskakizun berriak guztiz bat datoz balio naturalak errespetatzen dituzten ekoizpen ekologikoekin.

Ikuspegia

Ekosistema berritzaile bat finkatzea, zeinak Busturialdea-Urdaibai tokiko nekazaritzako elikagaien ekintzaitzarako aukera-lurralde bihurtuko duen, gai izango dena Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioekin bat datozen elikagaiak ekoizteko.

Ekosistema berritzaile bat finkatzea ...

Ekosistema berritzaile bat finkatzeko ikuspegiak berekin dakar askotariko plan, programa eta proiektutan oinarritutako tresnen artikulazioa ikusi ahal izatea, tokiko nekazaritzako elikagaien sektoreari lotutako enpresak sortzera bideratutako testuinguru aproposa eskaintzeko.

... zeinak Busturialdea-Urdaibai tokiko nekazaritzako elikagaien ekintzaitzarako aukera-lurralde bihurtuko duen...

Busturialdea eskualdea eta Urdaibai Biosfera Erreserba lurraldea mailako erakunde ezin hobea dira tokiko nekazaritzako elikagaien sistemen jarduera jasangarriari lotutako ekintzaitza-prozesuak errazteko. Berrikuntzan oinarrituta paradigma aldatzeko aukera sortzea da 2030erako nekazaritzako elikagaien strategiari zentzua ematen dion ikuspegietako bat.

... gai izango dena Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioekin bat datozen elikagaiak ekoizteko.

Elikadura-estrategia baten azken mugarria da herritarrak askotariko elikagai osasungarri eta eskuragarriekin hornitzea. Horiek bat etorri behar dute ekoizten diren ingurunearekin eta, Busturialdea-Urdaibairen kasuan, Biosfera Erreserbaren balioekin. Horregatik egiten da eredu ekologiko eta dibertsifikatuen eta merkaturatze-bide laburren aldeko apustua.



Balioak

Birsortzea:

Birsortzea gainbehera egin duen zerbaiti izaera berria ematea da, hura lehengoratzeko edo hobetzeko. Biologian, organismo batek galdutako edo kaltetutako bere atalak berreraikitzean datza. Birgaitzearen, eraberritzearen, berreraikitzearen, berritzearen, zuzentzearen edo berreskuratzearen sinonimoa da.

Aldatzeko eta berritzeko beharrari egiten dio erreferentzia, bai ekoizpen- eta merkataritza-ereduak, bai ekintzaileen profilak. Birsortzeko ezinbestekoa da Nekazaritzako Elikagaien Estrategia bultzatzen duten pertsonen eta erakundeen artean harremanak izateko modu berri bat.

Konfiantza

Norbaiten edo zerbaiten itxaropen irmoa da konfiantza. Norbere buruarekiko segurtasuna izan daiteke, zerbait norbere irudikapenen arabera garatuko den itxaropena, edo norbaitekin harremanean dugun hurbiltasuna. Itxaropenaren, fedearen, segurtasunaren eta ziurtasunaren sinonimoa da, baita etxekotasunarena, irekitasunarena edo naturaltasunarena ere.

Balio horrek adierazten du segurtasun-, ziurtasun- eta naturaltasun-ingurune batean oinarritu behar direla Nekazaritzako Elikagaien Estrategia osatzen duten pertsonen eta erakundeen arteko harremanak, helburuak lortzea errazteko.

Berrikuntza

Berrikuntza aldaketa-ekintza bat da, zeina metodo berrien aurrerapenarekin eta bilaketarekin lotzen den, aurre-ezagutzak oinarri hartuta, lehendik dagoen zerbait hobetzeko, arazo bat konpontzeko edo jarduera bat errazteko. Aurrerapenaren, asmakizunaren, aldaketaren edo berritzearen sinonimoa da.

Balio horrek gauzak beste modu batera egiteko eta ikuspegi berriei heltzeko beharrari egiten dio erreferentzia, proposatutako helburuak lortzeko. Berrikuntzaren ideiak funtzionatu duenetik eta funtzionatu ez duenetik ikasteko aukera ematen du, etorkizuneko ekintzak hobetzeko. Nekazaritzako Elikagaien Estrategian ezinbestekotzat jotzen da esku-hartzeak berrikuntzaren balioetan oinarritzea.

Jasangarritasuna

Jasangarritasuna egungo beharrak asetzeari da, etorkizuneko belaunaldiak eurenak asetzeko duten gaitasuna galtu gabe, hazkunde ekonomikoaren, ingurumenaren zaintzaren eta gizarte-ongizatearen arteko oreka bermatuz. Zerbait luze mantentzeko gaitasuna da, baliabideak agortu gabe edo ingurumenari kalte larriarik egin gabe.

Balio horrek erreferentzia egiten dio ingurunearekin harreman osasungarria izango duten ereduetan oinarritutako ekoizpen- eta kontsumo-sistemari eusteko beharrari. Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren dimentsioak integratzea ezinbestekoa da Busturialdea-Urdaibain Nekazaritzako Elikagaien Estrategiak behar bezala funtziona dezan.

Lankidetzak

Lankidetzak beste batekin edo batzuekin batera lan egitean datza, helburu komun bat lortzeko. Kolaborazioaren, elkarlagunaren, laguntzaren edo babesaren sinonimoa da.

Balio horrek erreferentzia egiten dio helburu estrategikoak lortzeko elkarrekin lan egin beharrari. Hainbat pertsona eta erakunde barne hartzen dituen nekazaritzako elikagaien estrategia batean funtsezkotzat jotzen da lankidetzarako espirituari eustea, eta ezarritako mugarriak lortzeko prozesuan zehar mantentzea.

Produktibitatea

Produktibitatea ekoizpenaren eta hori lortzeko erabili diren bitartekoen arteko erlazioa da, hala nola langileak, materialak, energia, etab. Lan-unitate, landutako lur-azalera, industria-ekipamendu eta abarren araberrako ekoizpen-ahalmena edo -maila da. Errendimenduaren sinonimoa da.

Balio horrek erreferentzia egiten dio Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren oinarri diren sistemak produktiboak izateko beharrari, bai elikagaien hornidura ahalbidetzeko, bai nekazariak hortik bizi ahal izateko. Produktibitateak bat etorri behar du gainerako balioekin. Horrek barne hartzen ditu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegiak.

Kalitatea

Kalitatea objektu batek behar inplizituak edo esplizituak asetzeko duen gaitasuna da, parametro baten arabera; hots, nolakotasun-eskakizunak betetzea. Kontzeptu subjektiboa da; izan ere, norbanako bakoitzak gauza bat mota bereko beste batekin alderatzean dituen usteei lotuta dago.

Balio horrek erreferentzia egiten dio kalitatezko elikagaiak ekoizteko beharrari, zeinak Nekazaritzako Elikagaien Estrategia behar bezala ezartzea bermatuko duten. Balio subjektiboa denez, baliteke adostu behar izatea zer esan nahi duen kalitateak tokiko nekazaritzako elikagaien sistemez ari garenean.

5.2 Helburu estrategikoak

Ekosistema berritzaile bat sortzea, tokiko nekazaritza-enpresen bideragarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa errazteko

Elikagaien politikak bideratzen dituzten erakunde-esparruak paradigma-aldaketa bat jasaten ari dira ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarriagoetarantz. Nekazaritzako elikagaien eskaria eta eragile berrien borondatea ekoizpen-sistema jasangarrietara bideratuko direla aurreikusten denez, helburu estrategikoetako bat da hori ahalbidetuko duen ekosistema berritzaile bat sortzea.

Helburu hori Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren balioetan oinarritzen da, epe luzerako ikuspegia lortzeko, hau da, ekosistema berritzaile bat sendotzeko, zeinak Busturialdea-Urdaibai tokiko nekazaritzako elikagaien ekintzaitzarako aukera-lurralde bihurtuko duen, Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioekin bat datozen elikagaiak ekoizteko gai izango dena.

Horretarako, beharrezkoa da dauden baliabideak hobetzen dituzten edo berriak sortzen dituzten ekintzak antolatzea. Inplikaturako erakundeek lankidetzak-esparruak ezarri behar dituzte «ekosistema berritzailea» sortzeko, tokiko nekazaritza-enpresek bideragarritasun-estandarrak lor ditzaten. Horretarako, beharrezkoa da balio-kate osoan lan egitea, ekoizpenetik hasi eta kontsumora arte, bai eta ekintzaileen askotariko profilekin ere. Ekosistemak aukera eman behar die lehendik dauden enpresei eredu jasangarrietara bideratzeko, eta sortzen ari direnei eredu horiek hasieratik bereganatzen lagundu behar die.

Nekazaritza-ekintzaitza profil berriak erakartzea, zeinak tokiko sarea berrituko duten, nekazaritza-ekoizpen jasangarrian oinarrituta

Nekazaritza-berrikuntzako ereduak eboluzionatzen ari dira, eta gero eta gehiago dira. Familia barneko nekazaritza-erreleboaz gain, sektorekoak eta/edo landa-eremukoak ez diren pertsona gehiago ari dira nekazaritzan Europako eta EAEko hainbat lurraldetan.

Nekazaritza-ekintzaitza profil berriek laguntza espezifikoa behar dute sektorean sartzeko prozesu osoan zehar. Haien abiapuntuagatik ezagutza eta esperientzia gutxi izan ohi dute, baita nekazaritza-jarduera bat hasteko baliabide gutxi ere, hala nola lurra, makineria edo instalazioak. Hori dela eta, ezinbestekoa da laguntza-baliabideak haien egoerara egokitzea.

Ekosistema berritzaile bat sortzeak aukera eman behar du nekazaritza-ekintzaitza profil berriak erakartzeko, sektorean sartzeko eta ondoren enpresa-sarean finkatzea errazten dien ingurune batera. Helburu hori lortzeko jardueren ardatza honakoa da: nekazaritza-belaunaldi berriek laguntzeko egungo sistema hobetzea, bai eta horiek nekazaritza-ekoizpen jasangarriko ereduera bideratzea ere.

Konfiantza sortzea tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea dinamizatzen duten eragile publiko eta pribatuen artean

Kateko eragileen arteko konfiantza-harremanetan oinarritzen dira nekazaritzako elikagaien gobernantza-esparru berriak. Funtsezkotzat jotzen da behar hori bistaratzea ahalbidetuko duen helburu bat ezartzea; izan ere, Nekazaritzako Elikagaien Estrategian inplikaturako pertsonen eta erakundeen arteko jardunbide ona gakoa da ikuspegia lortzeko.

Horretarako, ezagutza trukatzeko eta sortzeko espazioak ezarri behar dira, baita konfiantzan oinarritutako harremanak finkatzea ahalbidetuko duten protokoloak eta metodologiak ere. Nekazaritzako Elikagaien Estrategian parte hartzen duten erakundeen rola identifikatu behar dira lurraldeko errealitatea islatzen duen eragile-mapa bat egin ahal izateko.

Konfiantza prozesu bat da, eta denboran zehar landu behar da. Beraz, eragileen artean konfiantza sortzea helburu estrategikotzat hartzeak lankidetzaren beharra gogoan izatea ahalbidetzen du.

Tokiko eta sasoiko ekoizpen ekologikoan oinarritutako elikagai osasungarriak eskuratzen laguntzea

Produktu osasungarrien eskaria gero eta handiagoa da. Pertsonen eta ingurunearen osasunarekiko kezka kontsumo-eredu berriak sortzen ari da, eta horietan elikagai osasungarriak eta jangarriak eskatzen dira. Dieta osasungarrien balioak tokiko eta sasoiko ekoizpen ekologikoan oinarritzen dira. Beraz, elikadura osasungarria eskuratzen laguntzeko, beharrezkoa da hainbat norabidetan ekintzak egitea. Alde batetik, ekoizpen-eredu jasangarriak babestea; bestetik, produktuak kontsumo-bide desberdinetan errazago sartu ahal izatea, eta, azkenik, produktu horien erosketa arduratsua sustatzea.

Izan ere, Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren ikuspegia lortzeko berekin dakar herritarrek elikagai osasungarriak eskuratzeko aukera izatea, jantoki kolektiboetan, jatetxeetan zein etxean. Menu osasungarria lehenetsi behar da Nekazaritzako Elikagaien Estrategian inplikaturako erakunde guztien artean lortu beharreko helburuen artean.

Planteamendu argi, erraz eta zuzen bat egituratzea, sektorea duintzeko eta herritarrak elikagai jasangarriak erostera bultzatzeko

Azken urteotan, nekazaritzan profesionalki aritzea ez da gizartean aitortutako jarduera izan. Lan gogorra da, esfortzu fisiko handia eskatzen du, etengabeko arreta behar du eta etengabe klimatologiaren mende dago. Hori dela eta, ez da erakargarria gaur egungo bizi-kalitatearen ikusmoldean. Ondorioz, ekoizle askok nekazaritza ez den beste edozein lanbide gomendatzen diete beren seme-alabei.

Horregatik, funtsezkotzat jotzen da planteamendu berriak egituratzea, sektorea duintzeko eta gizarteari mezu eraikitzaile bat helarazteko; lehenik eta behin, ekoizleen lana ulertzeko eta errespetatzeko; eta, bigarrenik, belaunaldi berriei gonbita luzatzeko, nekazaritza-sektorea zer den eta etorkizuneko lanbide nola bihur daitekeen aztertzea.

Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren esparruan egin beharreko ekintzak honetara bideratuta daude: nekazaritza-jardueraren errealitatea eta horrek zer dakarren eta zer esan nahi duen jakinaraztea. Ildo horretan, kontuan hartu behar da planteamenduak egungo ekosistemarekin bat etorri behar duela, baita sortu nahi den ekosistemarekin ere. Beraz, nekazaritzako errealitateari buruzko planteamendu eraikitzaile bat antolatu ahal izateko, lan egin behar da kontatzen dena existitzen den horretan eta irudikatzen den horretan oinarritu dadin.

Gobernantza: zeintzuk dira eragileak?

Lurralde-errealitate eta errealitate sozioekonomiko berriek gobernantza berriak behar dituzte, zeinak gai izango diren hiriguneetako zein landa-eremuetako erronkei erantzuteko. Lurralde-dinamikak osatzen dituzten eragileak asko direnez, gune horien kudeaketa lan konplexua da, batez ere, eragile publiko zein pribatuak inplikatzeko dituzten estrategiak planteatzen direnean. Nekazaritzako Elikagaien Estrategia bat ezartzeko eta zuzen garatzeko, beharrezkoa da kateko eragile guztien inplikazioa, baita nekazaritza-sektorearekin eta lurraldearekin lotura duten erakunde publiko eta pribatuen inplikazioa ere. Gobernantzak eztabaida, ikuspuntuen konbergentzia eta eragileen arteko koordinazioa errazten duten mekanismoak behar ditu, testuingururako eta lurralderako egokienak diren ekintzak diseinatzeko. Halaber, beharrezkoa da prozesuak ebaluatu eta jarraipena egin ahal izatea, ikasteko eta prozesuan oinarrituta erabakiak hartzeko gai izateko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak eta Urremendi Landa Garapen Elkarteak bultzatu dute Busturialdea-Urdaibaiko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia 2030, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, ENEEKekin, HAZIrekin, JANGURIErekin, LORRArekin eta NEIKERekin batera.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren balioekin bat etorriz, eskualdeko nekazaritza-jarduera dinamizatzeko lantalde bat martxan jarri zuten eragile horiek 2020ko urrian. 2021ean, hainbat lan-saiotan parte hartu zuten, nekazaritza- eta elikagaigintza-gaiak lantzen dituen ibilbide-orriaren definizioan aurrera egiteko, lurraldeari eta bertako eragileei lotutako tokiko ikuspegitik.

Lantaldearen helburua honakoa da: ekintza espezifikoak babestu, koordinatu eta proposatzea, tokiko eta sasoiko elikagai ekologikoen ekoizpen- eta kontsumo-beharrei erantzuteko. Busturialdea-Urdaibaiko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia 2030 gauzatzeko malgutasuna emateko, organo egonkorrak egon daitezkeela aurreikusten da, hala nola talde eragilea, eta premien arabera martxan jarriko diren beste baliabide batzuk, hala nola aldi baterako gaikako taldeak.

Erreferentziazko dokumentazioa: zertan oinarritzen gara?

Orientazio estrategikoak

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>

Europako Itun Berdea

https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es

Baserritik Mahaira» estrategia

https://ec.europa.eu/food/horizontal-topics/farm-fork-strategy_en

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

<https://www.euskadi.eus/agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/web01-s1leheki/es/>

Basque Green Deal

<https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/68912-basque-green-deal-modelo-vasco-para-desarrollo-economico-justo-sostenible>

EAEko Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana 2020-2023

https://www.euskadi.eus/plan_programa_proyecto/plan-de-fomento-de-la-produccion-ecologica-fope/web01-a2elikal/es/

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020

https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/pega/es_def/adjuntos/PEGA.pdf

Busturialdeko Landa Garapenerako Programa 2015-2020

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pdrs_comarcales/es_def/adjuntos/PDR_BUSTURI_ALDEA_osa.pdf

Menorcako elikadura-estrategia

<http://www.biosferamenorca.org/Contingut.aspx?idpub=2332>

Dokumentu ofizialak

DGIP (2012): EU Measures to Encourage and Support New Entrants. Hemen: Policy Department B Structural and Cohesion Policies

[https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2012/495830/IPOL-AGRI_NT\(2012\)495830_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/note/join/2012/495830/IPOL-AGRI_NT(2012)495830_EN.pdf)

Kontuen Auzitegia (2017) 10/2017 Txosten Berezia: EBk nekazari gazteei ematen dien laguntza hobeto bideratu beharko litzateke belaunaldien arteko errelebo eraginkorra ahalbidetzera

<https://www.eca.europa.eu/es/Pages/DocItem.aspx?did=41529>

Tokiko eta sektoreko ikerketak

Eskola-jantokiak EAEn

<https://justicialimentaria.org/sites/default/files/docs/resumen-web.pdf>

Busturialdea-Urdaibain eskualdeko jantoki kolektiboak hornitzeko tokiko elikagaien ekoizpenaren diagnostikoa (2020-2021)

LURBIZI proiektuan oinarritutako hainbat dokumentu (2015-2018)

Urdaibaiko elikagai ekologikoak Urdaibaiko jantoki kolektiboetan (2012)

Artikulu zientifikoak

Begiristain, M. eta López, D. (2016). Viabilidad económica y viabilidad social. Una propuesta agroecológica para la comercialización de la producción ecológica familiar. ENEEK-Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

<https://www.ekolurra.eus/files/2020/02/20161102-viabilidad-definitibo-web-2.pdf>

López García, D. (2011): Canales cortos de comercialización como elemento dinamizador de las agriculturas ecológicas urbana y periurbana

https://daniellopezagroecologia.files.wordpress.com/2011/05/ccc-y-agricultura-periurbana_elche-2011_daniel-lopez1.pdf

Mundubat (2012): Circuitos cortos de comercialización en Euskal Herria

http://pae.gencat.cat/web/.content/al_alimentacio/al01_pae/05_publicacions_material_referencia/arxius/circuitoscortos_euskalherria.pdf

Zagata eta Sutherland (2015): Deconstructing the 'young farmer problem in Europe: Towards a research agenda. Journal of Rural Studies 38: 39-51

https://www.researchgate.net/publication/272372183_Deconstructing_the_'young_farmer_problem_in_Europe'_Towards_a_research_agenda

Ikerketa-proiektuak

Operational Group: new entrants into farming: lessons to foster innovation and entrepreneurship

<https://ec.europa.eu/eip/agriculture/en/focus-groups/new-entrants-farming-lessons-foster-innovation-and>

H2020 NEWBIE: New Entrant netWork: Business models for Innovation, entrepreneurship and resilience in European agriculture

<http://www.newbie-academy.eu/>

H2020 RURALIZATION

<https://ruralization.eu/>

Grupo de Trabajo Acceso a la Tierra

<https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/jovenes-rurales/grupo-acceso-tierra/>



nm neus
monllor